

E I B A R

«Euskera Lagunak» elkartea

Mundu zabaleko Unibertsidade askotan, euskara irakasteko tokiak sortzen ditue, antzinako kultura, hondasun bizia eta baliotsua dalako. Geure herrian, osterak*, hainbat mendetan* bizirik iraun dauan euskara, berbeta bizi legez*, galtzeko arriskuan daukagu.

Gorabehera ezegokiek kalte haundia egiten deustoe, baina gure zabarkeriak ere bai, euskara zaintzeko inor baino behartuagoak garen arren. Gauza hain ederra galtzen lagak* dogula gure ondorengoek bekatutzat salatu ez deiskuen, geure laguntasuna eskaini deustegu, euskararen aldeko lanean jo eta ke lehendik diharduenel.

Horretarako sortu berri da Eibarren «Euskera Lagunak», euskara erabiltzearen aldeko elkartea, ez lehendik diharduenen ordezkatzat, ahal dauantxoan hareei laguntzeko baino. Elkarte honek, gure berbetaren alde lan egin gura daben guztiak batzandu nahi ditu, euskaldun izan edo ez. Bere lan asmoak honeexek ditu:

- Herri agintarien gandik euskararen ganako begirapena eta laguntasuna lortu, bai irakaskintzan, bai herri bizitzan.
- Gure berbeta irakasteko tokiak gehitu, eta orain horretan diharduenel lagundu.
- Gure umeentzat, berbeta bitariko eskolak sortu eta sortu erazi, eta dagozenel lagundu.
- Euskara ikasteko metodo berriztatuak eta egokiak argitaratzea lortu; eta beste ikasgai guztiak ere bai.
- Irakasle berriak behar dan bezala gertutzeko laguntasuna eskaini, irakasle egokien premia haundia dagoelako.
- Euskal kulturaren aldeko joera guztiei indarra eman: hitzaldiak, teatro jakak, zine erakusketak, literatura lehiaketak*, liburuak, aldizkariak, eta abar.
- Eta, gainera, gure hizkuntza malte hau indarberritzeko, legeen arauera* egin leiteken guztia egin.

Egingarri diren asmo guztiak batu eta eginbidean jarri nahi ditu elkarte berri honek. Bidezko diren modu eta era guztiak erabili nahi leukez, eta, herriak laguntasuna ukatzen ez badeutsa, ahaleginak egingo el* ditu, horrelantxe jarduteko.

Euren asmoak haintzat hartzen dituen guztiak sartuko dituzte euren artean, nor nor dan begira ibili barik. Hori lortzeko, bete daikezu, irakurle, bazkide izateko eskabide txartela. Gura izanez gero, bete elzu eta mesedez bidaldu edo eman eloezu arduradunenel.

ALBISTARIAK

(«Euskera Lagunak» elkarteko bulegoak
zabaldutako hainbat horritatik)